



ALKATE DEKRETUAREN JAKINARAZPENA
NOTIFICACION DE DECRETO DE ALCALDIA

IRTEERA-ERREGISTROA

Zkia

Data

Alkate Dekretua, 2022ko apirilaren 8koa 394 zenbakiarekin Alkatetzaren Dekretuen iburuan jasoa. Hauxe dio hitzez hitz:

Auzobideen eta egur karga-leku publikoen erabilera arautzeko ordenantza kontsulta publikora ateratzea

Toki erakundeen eskumena da Udalaren titulartasuneko hiri- eta landa-bide publikoak antolatzea eta kudeatzea, kontserbatzea eta mantentzea barne. (2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, 17. artikulua)

Bide horretan, Gipuzkoako udalerrri gehienek arautua dute hiri- eta landa-bide publikoen erabilera, batez ere, kontserbazioa eta mantentze egokiak bermatu daitezen.

Oñatiko Udalak 2012a geroztik ahalegindu da Oñatiko udalerriko auzobideen eta egur karga-leku publikoen erabilera arautzen. Hala ere, kanon edo tasa, zein berme bat ezartzeko aukerak sortu izan duen gatazkaren aurrean, egitasmoa bertan behera utzi izan da.

2021eko azaroaren 23an egindako auzo-alkate foroan, Baso Elkarteak landutako ordenantza eredia aurkeztu zen. Aipatu ordenantzak, udalerrri guztietarako eredia izateko helburua du.

2022ko martxoaren 1ean egindako auzo-alkate foroan, aipatutako eredu hori hobetsi zen kanon edo tasa ezartzeko aukera baztertuta eta bermea jartzeko aukera zabalik utzita.

Nahiz eta ordenantzaren zirriborroa bukatuta egon ez, prozedura administratiboari bere hasiera ematea proposatu du Batzordeak, hain zuzen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak xedatutakoa.

Aipatu 39/2015 Legearen VI. tituluak legegintza-ekimena eta erregelamenduak eta bestelako xedapenak emateko ahala xedatzen du. Horren baitan, 133. artikulua herritarrek lege-mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartzea arautzen du. Horren arabera, administrazio publikoek legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko dute administrazio eskudunaren webgunearen bitartez. Helburua da etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuen eta antolakunderik ordezkagarrienen iritzia jasotzea puntu hauei buruz:

- a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak
- b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den
- c) Arauaren helburuak
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik

Udal prozeduren gidaliburuko P006 prozedurak xedatutakoaren arabera, arau-proposamenaren ardura duen sailak Administrazio Prozeduraren Legearen 133. artikulua ezartzen dituen sarrera eta lau eremuak jasotzen dituen dokumentua bidaliko dio Udalaren Herritarren Partaidetza eta Komunitate Garapenerako Sailari.

2022ko martxoaren 15ean Zerbitzuak eta Landa Garapen Batzordeak egindako bileran,

besteak beste, aipatu prozedurari hasiera ematea erabaki zuen.

Horrenbestez, Nekazaritza-auzoak eta Ingurumen teknikariaren proposamena kontuan hartuz, Oñatiko Alkate naizen honek, honakoa erabaki dut:

1. Udalerriko auzobideen eta egur karga-leku publikoen erabilera arautzeko prozedurari hasiera ematea
2. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 133. artikulua xedatutakoari jarraituta, Udalaren webgunean kontsulta publikorako epea zabaltzeko helburuarekin, hasierako dokumentua publikatzea.

Jakin dezazun eta behar diren ondorioetarako adierazten dizut hori

Oñatin, 2022ko apirilaren 11n



Idazkariak

Iñigo Roldán Catalán